

## OÑATIKO EAJ-PNVK EUSKADI LAGUNKOIA PROGRAMA OÑATIN ERE ABIAN JARTZEKO BEHARRA BERRETSI DIO EH BILDUREN UDAL-GOBERNUARI

- **Euskadi Lagunkoia EAJ-PNVren udal-taldearen hauteskunde-programan dago jasota (2015), eta helburu nagusia da Oñati lagunkoia egitea, herri bizia eta atsegina edade guztiakoentzat**

EAJ-PNVren helburu nagusia da oñatiarren ongizatea eta bizi-kalitatea bermatzea eta hobetzea. Horretarako, Oñatin ere Euskadi Lagunkoia ekimenarekin bat egitea proposatu dio berriz EAJren udal-taldeak EH Bilduko gobernuari. Xeeda hauxe da: herri atsegina eta lagunkoia eraikitza edade guztiako herritarra ardatz hartuta, eta batez ere edadeko herritarra aintzat hartuta.

Ildo horrekin, Euskadi Lagunkoia egitasmoarekin bat egiteko esan dio EH Bilduren udal-gobernuari. Programa horren helburua da edadeko pertsonentzako herri lagunkoia eta egokiak bultzatzea. Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoko 50 herri baino gehiagok egin dute bat ekimenarekin; besteak beste, Debagoinenako Aretxabaletak, Eskoriatzak, Antzuolak eta Arrasatek, zeina berriki lotu den programara. Hala, jeltzaleek adierazi dute “udalen erronka nagusia dela politika eta proposamenak egungo gizarte heterogeneora egokitzea, non lehen aldiz elkarrekin biziko diren lau eta bost belaunaldi ere”.

Age-Friendly Cities –Ciudades Adaptadas a las personas mayores– programan oinarritzen da Euskadi Lagunkoia ekimena. Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) sustatutako egitasmoa da, eta asmoa da edadeko herritarren parte-hartza sustatzea auzoak eta inguruak hobetzeko. Azken xeeda zera da: herri atsegina eta lagunkoia eraikitza. “Herri lagunkoia da edade guztientzako diseinatutako herria, edadekoek ere bere bizimodu autonomiarekin bizi izateko aukera eskaintzen duen herria, alegia. Edadekoen independentzia oztopatuko duen barrerarik ez daukan ingurua” adierazi du EAJren udal-taldeak.

Eusko Jaurlaritzak bultzatu du OMEren Euskadi Lagunkoia programa, Matia Fundazioaren gidaritzarekin gauzatzen da, eta bi erakundeon arteko lankidetza-hitzarmenaren bitartez finantzatzen da. Horrenbestez, “Oñati programako kide egiteko, Udalak bat egiten duenaren hitzarmena besterik ez litzateke behar”, argitu dute jeltzaleek. Izan ere, programa garatzen da, bai edadekoek elkarrekin lan egiteko daukaten ahalmena eta indarra erabilita, bai parte-hartze prozesu zabala sustatuta eta edadekoengan eta/edo elkartean utzita protagonismoa. Metodologia horrek, beraz, jarraibideak zehazten ditu, bai udala inplikatu dadin herriko hainbat esparrutan, auzotan eta/edo ingurutan egin beharreko hobetze-lanetan, bai edadeko herritarra izan daitezen eragile nagusiak espazio horiek atseginak bihurtzeko.

“Gaur egungo gizarte ereduan, belaunaldien arteko elkarbizitza ohiko bihurtzen ari da. Zahartze aktiboaren kontzeptua aintzat hartu behar du gizartea, eta gai izan adineko pertsonen autonomia bermatzeko. EAJ-PNVren udal-taldekoot uste dugu Euskadi Lagunkoia programaren beharra daukagula eta aukera ezin hobea dela Oñati Lagunkoia eraikitzea, gure herria atsegina egiteko herritar guztientzat (haur, gazte, heldu eta edadekoentzat)”, amaitu du EAJren udal-taldeak.

### OÑATIKO EAJ-PNVREN UDAL DALDEA

Oñatin, 2018ko maiatzaren 2an

## **EAJ-PNV DE OÑATI INSISTE ANTE EL GOBIERNO MUNICIPAL LA NECESIDAD DE ADHERIRSE AL PROGRAMA EUSKADI LAGUNKOIA**

- Esta es una propuesta recogida en el programa electoral del grupo jeltzale en 2015 y tiene como principal objetivo hacer de Oñati un municipio activo y amigable - "Oñati Lagunkoia"- diseñado para todas las edades

El principal objetivo de EAJ-PNV de Oñati es garantizar el bienestar y la calidad de vida de las personas. Para ello, el grupo municipal jeltzale propone la incorporación de Oñati al movimiento de "Euskadi Lagunkoia" para la construcción de un municipio amigable para personas de todas las edades contando con el protagonismo de las personas mayores.

Con este objetivo, ha instado de nuevo al gobierno municipal a adherirse al programa Euskadi Lagunkoia, un programa que promueve municipios con entornos amigables y adaptados para las personas mayores y al que, a día de hoy ya se han adherido más de 50 municipios de la CAV, entre ellos, Aretxabaleta, Eskoriatza y Antzuola junto con Arrasate que ha iniciado recientemente dicho proceso. Y es que, en palabras del grupo jeltzale, "a día de hoy, el gran reto al que deben hacer frente los Ayuntamientos, es el de adecuar sus políticas y propuestas a una sociedad heterogénea, en la que, por primera vez en la historia, pueden coexistir y convivir cuatro y hasta cinco generaciones a la vez".

El proyecto "Euskadi Lagunkoia" se basa en la iniciativa "Age-Friendly Cities – Ciudades Adaptadas a las personas mayores" promovida por la Organización Mundial de la Salud (OMS) para incentivar la participación de las personas mayores en la mejora de barrios y entornos con el fin de construir municipios amigables. "Un municipio amigable es un municipio diseñado para todas las edades y en el que, también, las personas mayores puedan mantener su autonomía en entornos sin barreras que limiten su independencia", ha señalado el grupo municipal.

Euskadi Lagunkoia, es la adaptación del programa de la OMS que promueve el Gobierno Vasco y que se desarrolla bajo la dirección de la Fundación Matia y se financia a través del acuerdo de colaboración firmado entre ambas Instituciones. Por tanto, " la incorporación de Oñati al programa, prácticamente, sólo requeriría el acuerdo de adhesión del Ayuntamiento". Y es que el programa se construye aprovechando el enorme potencial de colaboración que ofrece la ciudadanía de más edad, promoviendo un gran proceso de participación ciudadana delegando el protagonismo real en las personas mayores y/o sus asociaciones. Dicho proyecto establece así las pautas necesarias para implicar a los distintos Ayuntamientos en la mejora de determinados ámbitos, barrios y/o zonas municipales contando con las personas mayores como agentes principales para convertir dichos espacios en amigables.

"Estamos ante un nuevo paradigma de sociedad y convivencia intergeneracional que necesita incorporar el concepto de envejecimiento activo y dotar de autonomía a las personas mayores. Desde EAJ-PNV creemos firmemente en esa necesidad y en las posibilidades que ofrece este programa para lograr construir nuestra Oñati Lagunkoia, un municipio amigable para todas y todos, sean niñas, niños, jóvenes, adultos y personas de mayores", han concluido.

**GRUPO MUNICIPAL DE EAJ-PNV DE OÑATI**

En Oñati, 2 de mayo de 2018